

UMANDI IKASTOLA

JANTOKI ZERBITZUA

BARRUKO FUNTZIONAMENDURAKO ARAUDIA

JANTOKIKO EZAUGARRIAK

Instalazioak, jantoki kopurua eta jantokien kokapena.

Umandi ikastolako jantokia ikastetxeko sotoan kokatuta dago. Instalakuntzak jantokia bera eta txikiak atenditzeko ondoko gela txikia dira. Areto handian jantokia bera, sukaldea, despentsa, komunak eta konketak, Sukaldeak ontzi garbigailua, hozkailua, jakiak beroak mantentzeko armairua eta orokorrean jantokian beharrezkoak diren tresneriak daude.

Jantokiak irteera zuzena du ikastolako patiora.

2002an, Lurralde Ordezkaritzak hainbat hobekuntza egin zituen ikastetxeko jantokian.

Jantokiko antolaketa eta funtzionamendua.

Umandi ikastolako jantokia kudeaketa zuzenekoa izango da, 2000ko martxoaren 22ko legeak arautua.

Ezaugarri hauek izango ditu:

- Menuak: Arloko enpresa batek prestatu eta banatuko ditu
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak erabakiko ditu ordaindu beharreko kuotak.
- Sukaldeko langileak: Janaria prestatuko duen enpresa berak kontratatuko ditu.
- Begiraleak: Hezkuntza sailak kontratatuak
- Erratioak: Hezkuntza sailak ezarriak.
- Bazkalkideen onarpena:
 - Garraiatuak diren ikasleak
 - Ikastetxeko ikasle bekadunak
 - Ikastetxeko beste ikasle guztiak
 - Ohikoak
 - Noizbehinkakoak
 - Ikastolako langileak

HELBURUAK:

- a) Helburu orokorra: Jantokia ikastolaren barne dagoen zerbitzua da. Hezkuntza Proiektuan jasotako ohiturak, jarrerak, arauak eta baloreak izango ditu kontuan.
- b) Berariazko helburuak:
 1. Menua.
 - 1.1. Menuetan aniztasuna, kalitatea eta ugaritasuna kontrolatuko dira. O.O.G.ak edo Jantokiko batzordeak egokiak diren iradokizunak egingo ditu.
 - 1.2. Gurasoek hiruhilabetero jasoko dute menuen informazioa. (Enpresa banatzailea arduratuko da)
 - 1.3. Bazkalkide guztiak izango dute bazkari bera, agiri medikua dela edota osasun egoera berezietan izan ezik. Behar izanez gero eta 24 ordu lehenago jakitera emanda, dieta bereziak eskatu ahal izango dira.
 2. Garbitasuna
 - 2.1. Bazkal aurretik eta ondoren eskuak garbituko dituzte.
 - 2.2. Bazkal ondoren hortzak garbitu.
 - 2.3. Hortzak garbitzeko ikasleek eskuila eta pasta (H.H.koak ez) era onean izango dituzte izena jarria duen poltsatxoan.
 - 2.4. Jantokian, jatordurako H.H.ko ikasleek eta L.H.ko 1. mailakoek mantala ekarriko dute, derrigorrez.
 - 2.5. Norbere garbiketarako tresnak gordetzeko leku berezia izango da.

3. Portaera

- 3.1. Mahai tresnak era egokian erabiliko dira, inoiz ez jolasteko.
- 3.2. Gorputz jarrera egokian bazkaldu.
- 3.3. Bazkaria bukatu arte ez dira lekutik altxatu, premia berezia ez denean.
- 3.4. Edozein eskaera luzatzean errespetoz eta era egokian egingo dute.
- 3.5. Altzariak, ontziak, kubiertoak, zakarontziak ongi zainduko dituzte.
- 3.6. Laguntzeko jarrerak bultzatuko dira
- 3.7. Harremanetan ez dira irainak, borrokak onartuko. Elkarrizketa izango da arazoak konpontzeko bidea.
- 3.8. Gertaeren berri arduradunei emango zaie.
- 3.9. Begirale – ikasle eta ikasleen arteko komunikazioa euskaraz izango da.

4. Ordena

- 4.1. Sarrera – irteerak ordenean eta poliki egingo dira horretarako jarritako lekuetatik.
- 4.2. Jatorduak errespetuan eta giro atseginean egingo dira.
- 4.3. Ezin izango da ikastolako esparruetatik irten begiraleak, gurasoak edo tutoreak lagunduta ez bada.
- 4.4. Bazkaldu ondoren, propio jarritako geletan, ekintzak burutuko dira. Pasabideak ez dira jolastokiak.
- 4.5. Baloiarekin jolastokian baino ez da jolastuko. Jantokian eta ikastetxe barruan debekatua dago, baloia eskuetan eramango dute.

5. Janariaren aurrean eskatutako jarrera:

- 5.1. Janaria ez da jolasteko tresna.
- 5.2. Bazkalkideak janari guztiak probatzen animatuko dira. Gustoko izango ez dituzten arren, osasunerako elikadura orekatuaren garrantziaz kontzientziatu.

FUNTZIONAMENDUA

1. Bazkalkideak adinaren arabera taldekatuko dira.
2. L.H. ko 2. mailatik gorako ikasleek , begiraleek esandakoan, erabilitako ontziak jasoko dituzte eta beren tokietara eraman.
3. Bazkalkideek denbora jakin bat izango dute bazkaltzeko.
4. Begiraleek, ikasleen fitxa pertsonaletan, bazkaria jarrera eta garbitasunaren inguruko oharrak jasoko dituzte. Hiruilabetero txosten idatzia emango zaie gurasoei eta 2 eta 3 urteko umeen gurasoek, egunero izango dute informazioa ikastolako iragarki taularen bidez.
5. Gurasoek, aldez aurretik aditzera eman ondoren, jantokiko arduradunarekin egoteko aukera izango dute. Elkarrizketak asteartetan goizeko 10:30etatik 11:30etara izango dira.
6. Huts egitearen berri zuzendaritzan edo Jantokiko arduradunari emango zaio aditzera 24 ordu lehenago. Huts egitearen diruaren itzulera, bekadunak ez direnei, 3. egunetik aurrera egingo da. Ekainean ez da dirurik itzuliko.
7. Medikuairengana joan behar izatekotan, 1. txandakoak beranduenez 13:00etan etor daitezke jantokira eta 2. txandakoak 14:00etan.
8. Ikastolan ez badu bazkaltzen ezin izango da etorri 15:00ak arte.
9. Ikasleren batek botikaren bat hartu behar badu, idatzita ekarriko du eginbeharrekoa.
10. Gurasoek ohar guztiak idatziz bideratuko dituzte jantokiko arduradunarengana edo zuzendaritzara.
11. Begiraleek bat egingo dute jarritako helburuekin. Errespetatzeko eta errespetarazteko konpromisoa hartuko dute. Hurrengo zeregin hauek ere beteko dituzte: a.- Programaturiko ekintzak praktikan ipini. b.- Beti puntualak izan, bai umeak jasotzerakoan bai iharduerak antolatzerakoan. c.- Arauak errespetatzeko joerak bultzatu. d.- Une guztietan umeen arteko harremanak euskeraz izateko ekintzak prestatu.
12. Jantokiko arauak betetzen ez direnean lehendabizi ikaslearekin hitz egingo da, ondoren gurasoei jakinaraziko zaie. Egoera berriro ere errepikatuko balitz, Jantokiko batzordea bilduko da arau haustea baloratzeko. Bazkalkidea denbora baterako zein behin betirako kanporatua izan daiteke. Gertaeraren balorazioa egiterakoan ekintza bera aztertzeaz gain ikaslearen asmoa, eskola bizitzan izan duen eragina eta gertaeraren ingurukoak hartuko dira kontuan.
13. Gurasoek hileroko kuota ordaintzeari uko egiten diotenean ere bazkalkidea kanporatua izango da.
14. Araudi honetan jasota ez dagoen egoeraren bat sortuko balitz, ikastolan adostutako araudia (A.I.A.) aplikatuko litzateke.

KUDEAKETA BATZORDEAK

- O.O.G., Eskola kontseilua.
- Zuzendaritza taldea
- Jantokiko arduraduna
- Jantokiko batzordea

JANTOKIKO ORDUTEGIA

Goizeko klaseak amaitzean hasi eta arratsaldeko klaseak hasi artekoa izango da, hau da, 12:30etatik 15:00etara. Bi txanda egongo dira eta denbora horretan ikasle bazkaltiarrek ekintza desberdinak burutuko dituzte.

KANPOKO EDO BARRUKO JOLASAK: Harrapaketan, Alto edo Geldi, Aideketan, Txopika, Urdina-zuria eta gorria... Oka, Ludoteka, Zapatatxo...

ABESTIAK: Ez utzi umeei, Mizxintxu, San Prudentzio, ...

IPUIN KONTAKETAK: Oineko Gorriak, Zikoina eta Kanpaina, Untzia eta Dordoka, Altxor Kutxa, ...

BIDEOA: Marrazki Bizidunak...

TAILERRAK: Marrazkiak Margotu, Paztazko Idunekoak, Hatzamarren Mugimenduak...

LIBURUTEGIA: Nagusienek aukeran ikasketarako denbora izango dute.

JANTOKIAREN EKONOMIA KUDEAKETA

1.- Kontu zenbaki bat dago jantokirako. Kontu honetan, kuoten diru sarrerak egingo dira eta hortik enpresa banatzaileari ordainduko zaio.

2.- Jantokiko kuotak, hilero, lehendabiziko astean pasatuko dira.

3.-Jantokian gelditzen diren ikasle guztiak ordainduko dute jantokiko kuota. Eusko Jaurlaritzak bekadunen zerrenda bidaltzen duenean eta ikastolako kontuan dirua sartzen duenean, bekadunei ordurarte ordaindutakoa itzuliko zaie eta ez dute aurrerantzean ordainduko.

4.- Famili bakoitzak duen kontu zenbakia ikastolan jasotakoa da. Aldaketaren bat dagoenean, horren berri, lehenbailehen, eman behar duzue.

5.- Ordainagiria itzultzeak sortutako gastuak familiak ordainduko ditu. (Hurrengo hileko kuotan ordainduko da).

6.- Jantokian ohizkoak ez diren bazkaltiarrek, noizbehinka soilik gelditzen direnak, eskuz ordainduko dute izena ematerakoan.

Gasteizen, 2007ko urria